

## I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 654/2020 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako foru agindu hauek: azaroaren 22ko 744/2001, abenduaren 17ko 652/2007, abenduaren 10eko 770/2014, martxoaren 9ko 133/2005 eta irailaren 27ko 529/2017, hurrenez hurren onesten dituztenak 180, 182, 187, 198 eta 289 ereduak**

Arabako Foru Aldundiak ahalik eta zerga informaziorik zehatzena lortzeko, hura unean uneko errealitatekin bat etorri eguneratua egon behar da, al bait gutxien eragiteko zerga betebeharraren dutenengan informazioa eman beharra betetzean eta, era berean, beste zerga administrazio batzuetan indarrean dagoenarekin koordinatu behar da.

Horregatik, hainbat aldaketa egin behar da zenbait informazio betebeharraren ondorioz informazio hornitzeari buruzko araudian. Komeni da aldaketa horiek arau berdinean integratzea –halaxe egin izan da beste ekitaldi batzuetan–, xedea baita zerga betebeharraren dutenek ahalik eta ondoen jakitea zer aldaketa egiten diren.

Horregatik guztiatik, beharrezkoa da onestea 180, 182, 187, 198 eta 289 erduei buruzko informazio aitortpenak onetsi zituzten foru aginduak aldatzeko foru agindu bat.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 22ko 744/2001 Foru Agindua, zeinak 180 eredu eurotan adierazia onesten baitu, bai eta 180. ereduaren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak jartzeko diseinu fisiko eta logikoak ere. Eredu horren bidez errentatzaileek establezimendu iraunkorrei dagozkien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren hiri ondasun higiezinak alokatzearen edo berralokatzaren ondorio diren zenbait errenta edo etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkezten da.

Aldaketa hau egiten da 180 ereduko ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan, zeina azaroaren 22ko 744/2001 Foru Aginduaren II. eranskinean jaso baita:

Aldatu egiten da "HIGIEZINAREN KOKAPENA" eremua, 114 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 180 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (hartzailearen erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
114	Numerikoa	Hurrengo gakoaren artean, errentapeko higiezinaren egoerari dagokiona jasoko da: 1 Espainiako edozein tokitan –Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan izan ezik– dagoen higiezina, katastro erreferentzia duena. 2 Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen higiezina, katastro erreferentzia duena. 3 Nafarroako Foru Erkidegoan dagoen higiezina, katastro erreferentzia duena. 4 Aurreko egoeretako edozeinetan dagoen baina katastro erreferentziarik ez duen higiezina.

Bigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 17ko 652/2007 Foru Agindua aldatzea, zeinaren bidez onesten baita 182 eredu, dohaintza, emari eta ekarpenen eta egindako baliatzen informazio aitortpenarena, bai eta eredu horren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira abenduaren 17ko 652/2007 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotako 182 ereduko ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. Eredu berri bat sartzen da, "ONDARE BABESTUARENTITULARRAREN IFZ"; 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 133-141 posizioak hartzen dituena. Honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
133-141	Alfanumerikoa	ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN IFZ Aitortzailea babestutako ondare baten administratzailea bada, eremu honetan babestutako ondarearen titularraren IFZ adierazi behar da, bat etorritik IFZren Inguruko Betebeharrak Arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak ezarritako arauekin (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrotatu behar da. Azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.

Bi. Eremu berri bat sartzen da, "ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN ABIZENAK ETA IZENA"; 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 142-181 posizioak hartzen dituena. Honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
142-181	Alfabetikoa	ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN ABIZENAK ETA IZENA Aitortzailea administratzailea bada, eremu honetan adieraziko dira ondare babestuaren titularraren lehen abizena, espazio bat, bigarren abizena, espazio bat eta izen osoa.

Hiru. 1. motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa) "ONDARE BABESTUARENTITULARRAREN IFZ" (161-169 posizioak) eta "ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN ABIZENAK ETA IZENA" (170-209 posizioak) eremuak ezabatzen dira.

Lau. "ZURIUNEAK" eremua, 133-250 posizioak hartzen dituena 182 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan) 182-250 posizioetara aldatuko da.

Hirugarrena. Aldatzea abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredu, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteroko laburpena. Urteko laburpena.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira abenduaren 10eko 770/2014 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 182 ereduko ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. "KONTURAKO ORDAINKETA BAZKIDEAK/PARTAIDEAK" eremu berria gehitzen da, 241 posizioa duena II. Eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketaren erregistroa). Honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
241	Alfabetikoa	KONTURAKO ORDAINKETA BAZKIDEAK/PARTAIDEAK Eragiketa atxikipenik edo konturako sarrerarik gabekoa bada, konturako ordainketa bazkideak edo partaideak egin behar duelako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 79.2 eta 104. artikuluetan eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, "X" bat idatzi behar da eremu horretan. Gainerako kasuetan, eremu horrek ez du edukirik izango.

Bi. "ZURIUNEAK" eremua, 241-500 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketaren erregistroa), 242-500 "ZURIUNEAK" posizioetara aldatzen da.

Laugarrena. Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 FORU AGINDUA, zeinaren bidez onesten baita 198 eredua, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena, bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. "KONPENTSAZIOAK" eremua aldatzen da, 224-235 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
224-235	Numerikoa	KONPENTSAZIOAK Baloreak mailegatzeko eragiketen kasuan –horretarako, "O" jarri da "ERAGIKETA GAKOA" eremuan (2 motako erregistroaren 134 posizioa)–, konpentsazioen zenbatekoa jarriko da eremu horretan. "ERAGIKETA GAKOA" eremuaren gainerako gakoetarako (2 motako erregistroaren 134 posizioa), salbu eta "L" "V", "Y" eta "Z" gakoetarako, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81. artikulutik 84. artikulura bitartean ezarritako balore negoziagarrien likidazio prozeduratik eratorritako konpentsazioen eta likidazio doiketen zenbatekoa jarriko da. Eremu hori bitan banatzen da: 224-233 Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa. 234-235 Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.

Bi. "EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA" eremua aldatzen da, 348-360 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
348-360	Alfanumerikoa	EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA "ERAGIKETA GAKOA" eremuan (134 posizioan) "L" "V", "Y" eta "Z" gakoak jartzen baldin badira, hartan emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoa jarri behar da, hala badagokio. Eremu honetan atal hauek daude: 348 ZEINUA: Eremu alfabetikoa. "N" balioaz beteko da bakar-bakarrik aitortuak emandako diru konpentsazioak direnean. 349-360 ZENBATEKOA: Eremu numerikoa, 12 posiziokoa. Aurretik deskribatutako zenbatekoa adieraziko da, koma hamartarrik gabe. Eremu honetan atal hauek daude: 349-358 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati osoa. 359-360 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati hamartarra.

Hiru. "LOTURIKO ERAGIKETAREN EKITALDIA" eremu berria gehitzen da, 368-371 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
368-371	Numerikoa	LOTURIKO ERAGIKETAREN EKITALDIA Eremu hau beteko da baldin eta "LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" (341-347 posizioak) aitortpenarena ez den ekitaldi bati badagokio. Eragiketa hori egiteke badago oraindik, "0001" eremuan jasoko da. Gainerako kasuetan, eremu hau zeroz beteko da.

Lau. "ZURIUNEAK" eremua, 368–500 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), 372-500 posizioetara aldatzen da.

Bosgarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen informazio aitortpenaren 289 eredia onesten duena.

Bat. Aldatu egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

### “3. artikulua. Informazioaren gaia

Azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, 289. eredian aitortu beharko da agindu honen III. eranskinean zehaztutako informazio guztia, 5. artikuluko horretako 2. zenbakian aurreikusitako salbuespenak alde batera utzi gabe, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten eta aipatutako 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren herrialdeetako edo jurisdikzioetako batean egoitza fiskala duten pertsona edo erakundeei dagokienez.

Hala ere, aipatutako 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean jasotako diligentzia egokiari buruzko arauak aplikatu ondoren ondorioztatzen bada ez dagoela informazioa jakinarazi beharreko konturik, finantza erakundeek nahitaez egin beharreko aitortpen horren edukia agindu honen III. eranskinaren 1-5 eta 6.2 puntuetara mugatuko da.”

Bi. Aldatu egiten da I. ERANSKINA – Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinei buruz finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredia) aurkeztu behar baitute. Aurrerantzean eduki hau izango du:

AZAROAREN 13KO 1021/2015 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		AZAROAREN 13KO 1021/2015 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUAREN B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK
2021 ETA HURRENGOAK	2021 ETA HURRENGOAK	2021 ETA HURRENGOAK
Alemania Austria Belgika Bulgaria Zipre Kroazia Danimarka (**) Eslovenia Estonia Finlandia Frantzia Gibraltar (Erresuma Batua) Grezia Hungaria Irlanda Italia	Liechtenstein San Marino Andorra Monako Suitza	Albania Antigua eta Barbuda Saudi Arabia Argentina Aruba (Herbehereak) Australia Azerbaijan Barbados Belize Bonaire (Herbehereak) Brasil Brunei Darussalam Kanada Txile Txina Kolonbia

AZAROAREN 13KO 1021/2015 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		AZAROAREN 13KO 1021/2015 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN B) ETA C) LETRA (*)
EB	EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK
2021 ETA HURRENGOAK	2021 ETA HURRENGOAK	2021 ETA HURRENGOAK
Letonia Lituania Luxenburgo Malta Herbehereak (**) Polonia Portugal Erresuma Batua (**) Txekiar Errepublika Eslovakiar Errepublika Errumania Suedia		Korea Costa Rica Curaçao (Herbehereak) Dominika Ekuador Ghana Granada Groenlandia (Danimarka) Guernsey (Erresuma Batua) Hong Kong India Indonesia Islandia Cook uharteak (Zeelanda Berria) Man uhartea (Erresuma Batua) Faroeak (Danimarka) Israel Japonia Jersey (Erresuma Batua) Kazakhstan Libano Macau (Txina) Malaysia Maurizio Mexiko Montserrat Nigeria Niue Norvegia Zeelanda Berria Oman Pakistan Panama Errusia Saba (Herbehereak) Samoa Saint Kitts eta Nevis San Eustakio (Herbehereak) San Martin (Herbehereak) Saint Vincent eta Grenadinak Santa Luzia Seychelleak Singapur Hegoafrika Turkia Uruguai Vanuatu

(\*) 1021/2015 Errege Dekretua, azaroaren 13koa, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(\*\*) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabearen agertzen diren lurraldeak izan ezik [Azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluen b) eta c) letrak].

Hiru. II. ERANSKINA aldatzen da – Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte hartzailetzat» jotzen direnena. Aipatutako errege dekretuan elkarrekiko laguntzaren

esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeherra ezartzen da.

JURISDIKZIO PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA		
Albania	Finlandia	Maurizio
Alemania	Frantzia	Mexiko
Andorra	Ghana	Monako
Aingira (Erresuma Batua)	Gibraltar (Erresuma Batua)	Montserrat (Erresuma Batua)
Antigua eta Barbuda	Granada	Nauru
Saudi Arabia	Grezia	Nigeria
Argentina	Groenlandia (Danimarka)	Niue
Aruba (Herbehereak)	Guernese (Erresuma Batua)	Norvegia
Australia	Hong Kong	Zeelanda Berria
Austria	Hungaria	Oman
Azerbaijan	India	Herbehereak
Bahrain	Indonesia	Pakistan
Bahamak	Irlanda	Panama
Barbados	Man uhartea (Erresuma Batua)	Polonia
Belgika	Islandia	Portugal
Belize	Kaiman uharteak (Erresuma Batua)	Qatar
Bermuda (Erresuma Batua)	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Erresuma Batua
Brasil	Faroeak (Danimarka)	Txekiar Errepublika
Brunei Darussalam	Marshall Uharteak	Eslovakiar Errepublika
Bulgaria	Turkak eta Caicoak (Erresuma Batua)	Errumania
Kanada	Birjina uharteak (Erresuma Batua)	Errusia
Txile	Israel	Samoa
Txina	Italia	Saint Kitts eta Nevis
Zipre	Japonia	San Marino
Kolonbia	Jersey (Erresuma Batua)	San Martin (Herbehereak)
Korea	Kazakhstan	Saint Vincent eta Grenadinak
Costa Rica	Kuwait	Santa Luzia
Kroazia	Letonia	Seychelleak
Curaçao (Herbehereak)	Libano	Singapur
Danimarka	Liechtenstein	Hegoafrika
Dominika	Lituania	Suedia
Ekvador	Luxenburgo	Suitza
Arabiari Emireri Batuak	Macau	Turkia
Eslovenia	Malaysia	Uruguai
Estonia	Malta	Vanuatu

Lau. Aldatu egiten da 289 ereduaren III. eranskineko (elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen urteko informazio aitortpenaren edukia) 6. paragrafoa, eta honako eduki hau izango du:

“6.1. Aitortpen osagarria edo ordezkoa. Finantza erakundeek egindako adierazpen osagarrien edo ordezkoen mezu informatikoak aurkezteko, Interneten, hain zuzen, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan une bakoitzean jasota dauden baldintzak bete beharko dira.

6.2. Jakinarazi beharreko konturik gabeko adierazpena”

Bost. Aldatu egiten da 289 ereduaren III. eranskineko (elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen urteko informazio aitortpenaren edukia) 24. paragrafoa, eta honako eduki hau izango du:

“24. Informazioa jaso behar den pertsonaren bizilekuko estatu bakoitzak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, hura igorri duen herrialdea edo jurisdikzioa adierazita.

Hala ere:

a) Ez da nahitaezkoa izango IFZ jakinaraztea lehendik dauden kontuen kasuan, baldin eta finantza erakundearen erregistroetan ez badago eta erakunde horrek ez baldin baditu datu horiek bildu behar aplikatzeko den araudiaren arabera.

Hala ere, finantza erakundea saiatuko da IFZ lortzen, beranduenez, informazioa jakinarazi beharreko kontu gisa lehendik zeuden kontuak identifikatu diren urtearen ondorengo bigarren urte naturalaren amaieran.

b) Ez da nahitaezkoa izango IFZ jakinaraztea, egoitzaren herrialdeak edo jurisdikzioak ez badu ematen”

**AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpenei aplikatuko zaie lehen aldiz, 2020. urteari dagokion informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 15a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**